

LANAREN EKONOMIA IKASTAROA

2. gaiaren praktikak

OTAZUA GARMENDIA, GARIKOITZ

2. GAIAREN PRAKTIKAK: LAN MERKATUAREN INGURUKO INFORMAZIO ESTATISTIKOA

2.1 praktika

LAN MERKATUKO TASEN KALKULUA

Ekonomia batean 16 urtetik gorako 30 milioi pertsona daude. Horietatik, 2 milioi lan-merkatutik erretiratuta daude, milioi 1 ikasleak dira eta beste milioi 1 etxeke lanetan ari dira. Lana duten pertsonen artean, 15 milioi pertsonek lanaldi osoko kontratu mugagabea dute, 5 milioi pertsonek lanaldi osoko aldi baterako kontratua dute, 2 milioi pertsonek lanaldi partzialeko kontratu mugagabea dute eta beste 2 milioi pertsonek lanaldi partzialeko aldi baterako kontratua dute. Kalkula itzazu langabezia-tasa, jarduera-tasa, aldi baterako lanaren tasa eta lanaldi partzialeko lanaren tasa.

2.2 praktika

ALDAGAIEN BILAKAERA DENBORAN ZEHAR

Ondorengo taulan EBko hiru ekonomiatako langile-kopuruaren bilakaera ageri da. Adierazi zein ekonomia kaltetu duen gehien krisiak. Adierazi halaber krisiak berdin eragin ote dien gizon eta emakumeei eta herrialdeen arteko alderik baden alor horretan.

Langileak (milaka pertsonatan)


	Gizonak		Emakumeak	
	2008	2013	2008	2013
Grezia	2.721,9	2.027,3	1.801,0	1.431,8
Espania	11.708,1	9.236,9	8.608,4	7.764,7
Italia	13.513,0	12.584,0	9.185,6	9.171,4

Iturria: Eurostat.

2. GAIAREN PRAKTIKEN ERANTZUNAK

2.1 PRAKTIKA

Lehenik eta behin, eman dizkiguten datuak lan-egoeraren arabera biztanleriaren sailkapen-eskeman kokatuko ditugu.



Datu hauek oinarri hartuta, falta zaizkigunak kalkulatu ahalko ditugu. Honela, 30 milioi pertsona ditugu lan egiteko adinean, baina horietako 4 milioi pertsona ez aktiboak dira, beraz, biztanleria aktiboa 26 milioikoa izango da. Biztanleria aktiboa 26 milioikoa bada eta 24 milioi pertsona landunak badira, 2 milioi langabe egongo dira.

Jarraian, tasak kalkulatu ditugu:

$$\text{Langabezia tasa} = \frac{\text{Biztanleria Langabea}}{\text{Biztanleria Aktiboa}} \times 100$$

$$\frac{2}{26} \times 100 = 7,69\%$$

$$\text{Jarduera tasa} = \frac{\text{Biztanleria Aktiboa}}{\text{Biztanleria Potentzialki Aktiboa}} \times 100$$

$$\frac{26}{30} \times 100 = 86,66\%$$

$$\text{Denborazkotasun Tasa} = \frac{\text{Aldi baterako Landunak}}{\text{Biztanleria Landuna}} \times 100$$

$$\frac{5 + 2}{24} \times 100 = 29,16\%$$

$$\text{Enpleguaren Partzialtasun Tasa} = \frac{\text{Lanaldi Partziala duten Landunak}}{\text{Biztanleria Landuna}} \times 100$$

$$\frac{2 + 2}{24} \times 100 = 16,6\%$$

Beraz, laneko adina duen biztanleriaren artean, % 86,66 lan egiteko prest dago. Pertsona horien artean, % 7,69k ez du lana aurkitzen. Lana duten pertsonen artean, % 26,16k aldi baterako kontratua du eta % 16,6k lanaldi partzialeko kontratua.

2.2 PRAKTIKA

Landunen kopuruaren beherakada aztertuta, ikusten duguna da Espainian gertatu den enplegu-galera askoz ere handiagoa izan dela: 2.471,2 milioi gizonek eta 843.700 emakumek galdu dute enplegua. Hurrengo enplegu-galera handiena izan duen herrialdea Italia izan da eta, hirugarrena, Grezia. Hala ere, hau ez da tratamendu egokia. Bilakaera termino absolutuetan aztertzen bada, logikoa denez, ikusten duguna da biztanleria gehien duten herrialdeak direla enplegu gehien galtzen dituztenak.

Aldiz, bilakaera hori ehunekoen arabera azertu behar dugu, hazkunde-tasak erabilia. Esaterako, Greziaren kasuan (emakumeak), honakoa egingo genuke:

$$\begin{aligned} \text{Hazkunde tasa} &= \frac{\text{Landunak 2013an} - \text{Landunak 2008an}}{\text{Landunak 2008an}} \times 100 = \frac{1431,8 - 1801,0}{1801,0} \times 100 \\ &= -20,5\% \end{aligned}$$

Tasa guztiak kalkulatzen baditugu:

	Gizonak				Emakumeak			
	2008	2013	ALD. ABS. 2008-13	ALD. % 2008-13	2008	2013	ALD. ABS. 2008-13	ALD. % 2008-13
Grezia	2721,9	2027,3	-694,6	-25,5	1801,0	1431,8	-369,2	-20,5
Espania	11708,1	9236,9	-2471,2	-21,1	8608,4	7764,7	-843,7	-9,8
Italia	13513,0	12584,0	-929,0	-6,9	9185,6	9171,4	-14,2	-0,2

Emaitza oso desberdina da orain. Ehunekoak kontuan hartuta enplegu gehien galdu dituen herrialdea Grezia izan da, bai gizonengan zein emakumeengan ere. Gainera, herrialde guztietan, enplegu-galera handiagoa izan da gizonen artean (bai termino absolutuetan zein ehunekoan arabera ere).

